

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

3333

EBAZPENA, 2016ko uztailaren 7koa, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearena, 2016. urtean praktika sortzaileak bultzatzen dituzten kulturagune independenteei zuzendutako diru-laguntzak jakinarazten dituen (Sorgune deialdia).

2016ko martxoaren 11ko EHAAren, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2016ko martxoaren 9ko Agindua argitaratu zen, praktika sortzaileak bultzatzen dituzten kulturagune independenteei zuzendutako diru-laguntzak emateko araubidea ezartzen duena.

Agindu horren 12.2 artikulua dioenez, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordeak hartutako ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da. Horrek ez du esan nahi onuradun gertatzen direnei jakinarazpen indibidualizatua egingo ez zaienik.

Horiek horrela izanda, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2016ko martxoaren 9ko Aginduaren babesean emandako diru-laguntza guztiak eta haien onuradunak jakinaraztea. Zerrenda ebazpenari atxikitako eranskinean dago.

Bigarrena.— Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea, jendeak horren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko uztailaren 7a.

Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordea,
JOSÉ ÁNGEL MARÍA MUÑOZ OTAEGI.

ERANSKINA

«SORGUNE, BIURTEKOA» MODALITATEAN DIRU-LAGUNTZA EMAN ZAIENEN ZERRENDA

Eskatzailea	Proiektua	Diru-laguntza
Asociación Cultural Consonni de Bilbao	Programación Consonni	111.948
Asociación de artistas Artitadetó	Bitamine Faktoria	116.230
Azala espacio de creacion y alojamiento rural, S. L.	Azala, kreazio espazioa	120.000
Garaion Koop. El. Txikia	Garaion.eus Garaion Sorgingunea	114.854
Teatro Paraiso, S. A. L.	KunArte, Centro de Innovación Escénica y Pequeña Infancia	96.968

«SORGUNE, URTEKOA» MODALITATEAN DIRULAGUNTZA EMAN ZAIENEN ZERRENDA»

Eskatzailea	Proiektua	Diru-laguntza
Arrakala Koop. Elk. Txikia	Baratza 2016	54.447
Asoc. de malabaristas y artistas de circo Zirkozaurre	Haztegia 2016	56.141
Asoc. Esteka	Arropaineko Arragua	56.105
Asociación Cultural Histeria Kolektiboa	La Karpinteria	53.307
Asociación WikiToki Elkarsozietateko laborategia	Wikitoki	60.000